

MODERNITATEAREN AUZIA TXILLARDEGIREN *LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA* ELEBERRIAN. EXISTENTZIALISMOA EUSKAL HERRIAN 1957-1975

Tesiaren egilea: Maider Etxaniz Iriondo

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Filosofia Saila

Tesi-zuzendaria: Joxe Azurmendi Otaegi eta Esteban Antxustegi Igartua

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi hau Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutuari* eskainitako lana da eta hiru xede nagusi ditu. Aurrenengoa, *Leturiaren egunkari ezkutuak* euskal eleberrigintzari eginiko ekarpena bistaratzea. Horretaz gain, eleberririk existentzialista izanik, existentzialismoaren eragina aztertu dugu *Leturiaren egunkari ezkutan*, Kierkegaardena eta Unamunorena bereziki, zeren eta existentzialismo ateoaren kontzeptu gehienetara etorburuan Kierkegaarden pentsamendua baitago. Eta bukatzeko, Txillardegirik frankismoan bizi izan zuen erlijio-krisia bistaratu dugu.

Egiturari dagokionez, doktorego-tesi honetan honako lau zati hauek nabarmendu ditugu.

1. zatia, *Leturiaren egunkari ezkutuak* euskal eleberrigintza modernoari egin dizkion ekarpenei eskainia dago. Atal honetan, garai hartan *Leturiaren egunkari ezkutuak* izan zituen kritikak jasotzeaz gain, «modernitatea» euskal eleberrigintzan definitzeko orduan egon diren zailtasunak bistaratu ditugu. Horrela, bada, eleberriarren forman eta edukian erreparatzeaz gain, Txillardegirik darabilen estrategia narratiboari arreta berezia jarri diogu.

2. zatiak, aitzitik, existentzialismoa orokorrean, eta Kierkegaarden eta Unamunoren pentsamenduak izan ditu ardatz. Atal honi dagokionez esan dezakegu lan honetako puntu gatazkatsuena izan daitekeela, ikerketa-gaia *Leturiaren egunkari ezkutuak* baita eta ez Unamuno eta Kierkegaard. Hala eta guztiz ere, atal oso bat eskaini diegu autore horiei honako bi arrazoi hauengatik: aurrena, orain arte jasotako lan gehienetan, Unamunok eta Kierkegaardek Txillardegirengan izan duten eragina aipatu izan da; eta hori justifikatzeko ideia eta adibide garrantzitsu batzuk erabili dira, baina gehiegi sakondu gabe. Hala, filosofiaz gutxi dakien edonor azaleko ideia horiekin bakarrik geratzeko arriskua dago; hau da, jakin gabe zein den ideia horien jatorri filosofikoa. Autore horiei atal oso bat dedikatzearen beste arrazoia, bestalde, honako hau da: gauza bat da pentsalariok diotena, eta beste gauza bat da Txillardegirik nola ulertu eta islatu dituen pentsalari horien ideiak eleberrian. Hala, autore horien

pentsamendua azaltzearekin batera, ulergarriagoa egiten zaigu hurrengo atalean autore horiek Txillardegirengan izan duten eragina zehaztea, hots, zer aspektutan eta noraino izan den eragite hori determinatzea.

3. zatiari dagokionez, *Leturiaren egunkari ezkutuari* eskainia dago. Hau da, Kierkegaardek eta Unamunok eleberri honetan izan duten eragina hasieratik bukaeraraino azaldu dugu. Hala, bigarren atalean definitutako ideia nagusiak eleberrian nola txertatuak izan diren aztertu dugu.

Eta bukatzeko, 4. zatia Modernitatearen auziari eskainia dago. Zehazkiago esanda, Modernitatearen eztabaidak Txillardegirengan izan duen eragina analizatu dugu.